Bizitza

## Eskubideen eta osasunaren alde eta Covid-19 legearen aurka

### Euskal Herria Europan eskubideen lokomotora izatetik, EAE azken bagoira pasatzea

Gaurko San Juan eguna, 2021eko ekainaren 24 hau, tamalez, historiara pasatuko da baina ez onerako. Ez dugu Orreagan irabazi genuen eguna bezala gogoratuko, aspaldiko 778ko abuztuaren 15 hura bezala. Guztiz kontrakoa. Gaurko eguna euskal herritarroi aplikatu nahi diguten eskubide murrizketa handienetakoa izango da eta Noainen gure erresuma galdu genuen 1521eko ekainaren 30 hura bezala, edota foruak kendu zizkiguten 1876ko uztailaren 21 hura bezala gogoratuko dugu. Eta horregatik, gaur, euskal eskubideen ikurra den haritzaren ondora etorri gara, gure eskubideak eta askatasuna aldarrikatzera, gure arbasoek sarritan egiten zuten antzera.

Euskaldunok Europan eskubideen aitzindariak izan gara, Zuzenbide Piriniarraren bidez oinarrizko eskubideak aspaldi aitortuak izan genituelako, Foruei esker, Europako herrialde askotan baino lehenago. Adibidez, gaur egun hainbeste aldarrikatzen den gizon-emakumearen arteko berdintasuna gutxienez 1090etik aurrera bagenuen, Lizarrako Foruan jasota zegoelako. Bagenuen ere torturatua ez izateko eskubidea, edo esklabotzaren debekua beste herrialdeetan baino mende batzuk lehenago izan genuen. Edo polizia etxe batera ez sartzeko eskubidea, ez gauez ez egun argiz, leku sakratua zelako eta delako.

Baina, gaur egun, non daude gure eskubideak? Estatu espainiarrak eskubide murrizketa handienetakoa egin du Europan, Covid aitzakiarekin, eta orain, estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko euskal herritarrak izango gara, galiziarrekin eta aragoiarrekin batera, eskubide gutxien izango ditugunak.

Zer ikusten ari gara azken urte honetan? Zergatik Europa osoko konfinamendurik zorrotzena izan genuen eta umeek animaliek baino eskubide gutxiago izan zuten kalera ezin atera egon zirelarik, ezta une batean bederen,

## Por los derechos y la salud y contra la Ley Covid-19

### Euskal Herria de ser la locomotara de los derechos a convertirse la CAV en el furgón de cola de Europa

El día de San Juan, este 24 de junio del 2021, desgraciadamente, pasará a la historia, pero no para bien. No lo recordaremos como el día que ganamos en Roncesvalles, aquel 15 de agosto del año 778. Todo lo contrario. El día de hoy será recordado como uno de los de mayores recortes de derechos que nos quieren aplicar y lo recordaremos como aquel 30 de junio de 1521 cuando perdimos en Noain nuestro reino, o como aquel 21 de julio de 1876 en que nos arrebataron nuestros fueros. Y por eso hoy hemos venido junto al roble, símbolo de los derechos vascos, a reivindicar nuestra libertad y nuestros derechos, como hacían nuestros antepasados.

El pueblo vasco fue pionero en el  ámbito jurídico gracias al derecho pirenaico, porque reconocimos derechos fundamentales a través de los Fueros, antes que en muchos países europeos. Por ejemplo, la igualdad entre mujeres y hombres que tanto se reivindica hoy día, existía al menos a partir de 1090, ya que estaba recogido desde el Fuero de Estella. También teníamos derecho a no ser torturados-as, o la prohibición de la esclavitud la tuvimos siglos antes que en otros países. O el derecho a la inviolabilidad de la casa, donde la policía no podría entrar ni de noche ni de día porque era y es lugar sagrado.

Pero, hoy día, ¿dónde están nuestros derechos? El Estado español ha hecho uno de los mayores recortes de derechos con la excusa de Covid a nivel europeo y ahora, en el Estado, seremos los de la Comunidad Autónoma Vasca, junto con gallegos-as y aragonesas-es, las personas que menos derechos tendremos.

¿Qué estamos viendo en este último año? ¿Por qué tuvimos el confinamiento más severo de toda Europa y las niñas y los niños tuvieron menos derechos que los animales cuando no pudieron salir a la calle ni un momento,

Europan beste gauza bat ikusten genuen bitartean?
Zergatik itxi zituzten tabernak, Jaurlaritzak hemengo inolako azterketa aurkeztu barik? Davosek hori nahi duelako? Izan ere epaitegiak zabaltzera behartu zituenean hildakoak izugarri handituko zirela esan zigun Jaurlaritzak eta kontrakoa ikusi genuen!
Zergatik itxi dituzte udalerriak, etengabe aldatzen dizkiguten sasidatuen aitzakiekin? Denda eta enpresa txiki gehiago ixteko?
Zergatik diktaduretan bezala etxeratze agindu hori? Horrek zerikusirik al du gaixotasun baten kudeaketarekin?

mientras en Europa veíamos otra cosa?
¿Por qué cerraron los bares sin que el Gobierno Vasco presentara ningún estudio concreto realizado aquí? ¿Solo porque Davos quiera cerrar la hostelería? Y cuando el juzgado obligó a abrir los bares y el Gobierno Vasco nos dijo que los muertos iban a aumentar muchísimo ¡Y vimos justo lo contrario!
¿Por qué han cerrado los municipios con pretextos de datos que nos cambian constantemente? ¿Para finiquitar todavía más el pequeño comercio y las pequeñas empresas?
¿Por qué ese toque de queda como en las dictaduras? ¿Eso tiene algo que ver con la gestión de una enfermedad?

Baina pandemiaz hitz egin dezagun. Pandemia 2020ko maiatzean amaitu zen. OMEk berak erabat erratu zela onartu beharko luke, iaz 175 milioi pertsona hilko zirela baieztatu zigulako baina 4.000.000 hil direla ikusi dugulako. Kopuru horrekin une honetan pandemia bat dagoela esaten badigute, beste 3 pandemia gehiago daudela esan beharko luke, eta urtero gosez hiltzen direnekin lau pandemia.
Hori bai, OMEk hasieran esan zuen hilkortasun tasa baino 30 aldiz txikiagoa dela onartu berri du. Beraz, zergatik ez du OMEk ezer egiten, mundu mailan berak sortarazi duen gizarte, osasun eta ekonomi hondamen ikaragarri hau gelditzeko?

Pero hablemos de la pandemia. La pandemia terminó en mayo del 2020. La propia OMS debería decir claramente que metió la pata hasta el fondo, porque el año pasado nos dijo que iban a morir 175 millones de personas, y hemos visto que han sido 4.000.000 los muertos. Si nos dicen que con dicha cifra seguimos teniendo una pandemia mundial, deberían declarar en estos momentos otras 3 pandemias más y cuatro si contamos con las personas que se mueren de hambre.
Eso sí, la OMS acaba de reconocer que la tasa de mortalidad es 30 veces inferior a la que dijo inicialmente. Por lo tanto, ¿por qué la OMS no hace nada para detener la devastación social, sanitaria y económica que ella misma ha causado en todo el mundo?

Ez dago pandemiarik, pertsona asintomatikoak gaixoak ez direlako.
Ez dago pandemiarik, Zainketa Berezien okupazioa urte guztien antzekoa izan delako, negualdean gripeak antzera kolapsatu duelako.
Ez dago pandemiarik, hedabideek emandako eguneroko hildako kopuruak ez dituztelako beste urteetan hil direnekin alderatzen, hain desberdinak ez direlako.
Ez dago pandemiarik Europan %10-15 gehiago hil direlako, ez bikoitza edo hirukoitza.

No hay pandemia porque las personas asintomáticas no son enfermas.
No hay pandemia porque la ocupación de las UCIs se ha mantenido de forma similar a la de todos los años, colapsados cada invierno con la gripe.
No hay pandemia porque las cifras diarias de muertos que dan los medios de comunicación no los comparan con los de otros años porque no son tan diferentes.
No hay pandemia porque el aumento de mortalidad en Europa ha sido de un 10-15%, no del doble o el triple.

Hemen ez dago pandemiarik jada, baina bai ordea, gero eta erantzunik ez duten gero eta galdera gehiago:
Zergatik desagertu da Lehen mailako Arreta?

Aquí ya no hay pandemia, pero cada vez hay más preguntas que no tienen respuesta:
¿Por qué ha desaparecido la Atención Primaria?
¿Por qué siguen confinando a personas sanas?

Zergatik pertsona osasuntsuak konfinatzen jarraitzen dute?
Zergatik behartu gaituzte maskara eramaten osasunerako kaltegarria dela frogatuta dagoenean?
Zergatik erabiltzen dituzte PCRak sintomatologiarik gabe eta ziklo gehiegitara positibo faltsuak emateko?
Zergatik  medikamentu genetiko esperimentalei txerto deitzen diete?
Zergatik inokulazio horiek medikuaren aurreazterketa barik eta baimen informatu barik egiten ari dira?
Zergatik ez dituzte Covid-a sendatzeko hilkortasun gutxiago duten beste terapiak erabili nahi?
Zergatik ostalaritzaren %75 itxi nahi dute eta harreman sozialak gutxitu?
Zergatik ari dira denda eta enpresa txiki eta ertainak ixtera bultzatzen eta zergarik ordaintzen ez dituzten oligopolio handiak lotsa barik bultzatzen?
Zergatik ukatzen dute eztabaida zientifikoa eta izugarrizko zentsura ezarri dute, frankismo garaian bezala? Zergatik ari dira errepresioa eta zapalketa handitzen isunekin eta abarrekin?
Zergatik debekatu diete medikuei autopsiak egitea, gaixotasuna ezagutzeko aukera garrantzitsuenetakoa denean?
Zergatik egoitza batzutan zaharrak abandonatu zituzten, inolako osasun zainketarik gabe, ospitale batzuetan lekua zegoenean?

Baina galdera hauei erantzun beharrean, Covid lege berri horrekin gehiago zapaltzera datoz. Lege horrekin medikamentu esperimentalik jarri nahi ez ditugunok konfinatuak izan gaitezkeelako atxilotze zentroetan; datu pertsonalen babesa desagertuko delako; nahi dituzten aitzakiekin udalerriak, enpresak eta sektore osoak itxi ditzaketelako; urrunketa soziala eta ikastetxeetako protokolo militarrak betikotu ditzaketelako… Eta gero eta mota guztietako kontrol sozial gehiago. Hau da, oinarrizko eskubideak ukatu nahi dizkigute… Betiko?

Eta orain ume eta gazteei egur gehiago, Ikasturte osoan erregimen militarrean eduki ondoren, nahiz eta haien datuen arabera udalerri eta hilabete askotan osasun egoera ona izan: umeak ezin jolastu, urrunduta, ezin

¿Por qué nos obligan a llevar mascarilla en todo momento y en todas partes cuando está demostrado que es perjudicial para la salud?
¿Por qué utilizan PCRS sin sintomatología y a demasiados ciclos para dar falsos positivos?
¿Por qué los medicamentos genéticos experimentales son denominados vacunas?
¿Por qué se están realizando estas inoculaciones sin reconocimiento médico previo ni consentimiento informado?
¿Por qué no quieren utilizar otras terapias que ofrecen menos mortalidad para curar el Covid?
¿Por qué quieren cerrar el 75% de la hostelería y reducir las relaciones sociales?
¿Por qué están impulsando el cierre de comercios y pequeñas y medianas empresas y apoyan sin rubor los grandes oligopolios que no pagan impuestos?
¿Por qué niegan el debate científico y han impuesto una censura de estilo franquista?
¿Por qué aumentan cada vez más la represión con multas, etc.?
¿Por qué han prohibido a médicos realizar autopsias cuando es una de las mejores formas de conocer una enfermedad?
¿Por qué en algunas residencias se abandonó a las personas mayores dejándolas morir sin atención sanitaria cuando en algunos hospitales había sitio para atenderlas?

Pero en lugar de responder a todas estas preguntas nos vienen con más represión a través de esta nueva ley covid. Porque las personas que no queremos inyectarnos medicamentos experimentales podremos ser confinadas en centros de reclusión; porque desaparecerá la protección de los datos personales; porque con las excusas que quieran poner podrán cerrar municipios, empresas y sectores completos; porque pueden perpetuar el alejamiento social y los protocolos militares de los centros educativos. Y da vez más control social de todo tipo. En definitiva, porque quieren anularnos los derechos básicos… ¿Para siempre?

Y ahora más caña a niños-niñas y jóvenes. Después de haber estado todo el curso en régimen militar, a pesar de que sus datos indicaban que en la mayor parte de los municipios y meses la situación sanitaria ha sido

arnastu, hotzez hilda eta haien aitite-amamak hil ditzaketela esan…. Lotsagarria izan da. Onartezina. Nola ez gara oldartu tratu txar horien aurka?

Orain medikamentu esperimentala ume eta gazteei jarri nahi diete. 0-20 urte bitarteko adin tartean hilkortasuna % 0,00025ekoa izan da. Hau da, hildako bat 0-20 urte bitarteko 401.529 herritarren artean EAEn eta minbizia ere zuelako, hau da, ia 0. Behin eta berriz eman diguten bertsio ofizialaren arabera, gazteak, sintomarik eduki ez arren, ume eta gazteak adinekoen kutsatzaile nagusiak omen dira (txosten batzuen arabera kontrakoa omen da). Beraz, zergatik orain horiei txertoaren bidez antigenoa sartu eta ondorioz adinekoak kutsatzeko aukera gehiago sortu euren tesien arabera, hain zuzen ere esan zigutenaren guztiz kontrakoaren alde apustu eginez?
Zein da, orduan, ume eta gazteei, Euskal Herri osoan 600.000ri, medikamentu esperimentala jarri nahi izateko benetako arrazoia?
Birusari aurre egitea edo zabaltzen jarraitzea?
Zein da immunitate naturalaren alde ez egiteko benetako arrazoia?

Amaitzeko, politikariei, batez ere Euskal Autonomia Erkidegokoei, argi esango dizuegu, herriari traizioa egin diozuela. Ez duzuela merezi herri honen ordezkariak izatea. Aurrez aurre izango gaituzuela. Eta ez dugula zuen lege zabor hau onartuko, arbasoak gurekin daudelako, Gernikako Arbola eta berau ordezkatzen dituen eskubideei inoiz uko egingo ez diegulako.

Gora euskal herritarron eskubideak!
Gora Bizitza!

2021.06.24
Bizitza Plataforma

buena no han podido jugar, separados, sin poder respirar, muriéndose de frío y diciéndoles que podían matar a sus aitites y amamas. Ha sido vergonzoso. Inaceptable. ¿Cómo no nos hemos levantado ante semejante maltrato humano?

Y ahora quieren poner el medicamento experimental a niños y jóvenes. La mortalidad en la franja de edad de 0 a 20 años es del 0,00025%. Es decir, una persona fallecida entre 401.529 personas de 0 a 20 años en la CAV y ese único muerto porque tenía cáncer, es decir, casi 0. Según la versión oficial que nos han dado en repetidas ocasiones, si los jóvenes, a pesar de no presentar síntomas, son los principales transmisores de las personas mayores (según algunos informes es lo contrario). ¿Por qué ahora a estos jóvenes se les inyecta el antígeno a través de la vacuna y se generen más posibilidades de contagio según la teoría de ellos, apostando precisamente por lo contrario de lo que nos han estado diciendo?
¿Cuál es, entonces, la verdadera razón para querer inocular este medicamento experimental a niñas-niños y jóvenes, 600.000 en total en Euskal Herria?
¿Combatir o seguir expandiendo el virus?
¿Cuál es la verdadera razón por la que no se opta por la inmunidad natural?

Para terminar, os vamos a decir claramente a los políticos, sobre todo de los de la CAV, que habéis traicionado al pueblo. Que no sois dignas de representar a este país. Que nos tendréis de frente. Que no vamos a aceptar esta ley basura, porque nuestras antepasadas están con nosotras, porque nunca renunciaremos al Árbol de Gernika y a los derechos que le representan.

¡Viva los derechos del pueblo vasconavarro!
Gora Bizitza!